


Eskola, are neurotikoago?



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Ikasturte berriaren hasiera ezohiko honetan, jende asko jarri zaio eskolari begira, nolakoa izango den, zer ezauzgarri izango duen, haurren osasuna bermatuko ote duen, kezkatu. Niretzat harrigarria da batzuek lehenagotik ere kezka hori agertu ez izana, koronabirus berri hau etorri gabe ere betidanik egon delako eskolak haurrengan eduki dezakeen eraginagatik kezkatzeko motiborik, baina tira, horretan gehiegi sartu gabe, benetan pozgarria da azkenean denak jarri izana eskolaren izaerari buruz gogoetan. Eta jarri izana, gainera, hain gako den galdera baten inguruan: Nolakoa izan behar du eskolak, haurrentzat segurua eta osasungarria izateko?

Galdera horri serio erantzun nahi izatekotan, *osasunaz* dugun kontzepzioari buruz gogoeta egin beharko genuke, lehenik eta behin. Zeri esaten diogun *osasungarri*, edo *osasuntsu egotea*. Kontu hau ez da inondik ere azalekoa, muina jotzen du, arazoaren erdigunea. Osasun krisi hau eskolari galdegiten ari zaizkion aldaketan norabidea, osasun kontzeptuari ematen diogun dimentsioaren arabera baizik ezin baita erabaki.

Hitz politetatik haratago benetan uste baldin badugu osasunak bio-psiko-afektiboa izan behar duela, osasunaren

maila psikoafektiboan ere arreta jartzen hasi beharko dugu, oso eremu ezezaguna delako gu bezalako ez-jakin emozionalentzat. Hasteko, maila honetako osasunaren oinarria haurtzaroan dagoela barneratu behar dugu, eta psikoafektiboki sano garatzeko haurrek behar dutenaren ezagutza jendartean orokortu. Haurren osasun fisikoaren zaindaria gisa trebeak gara, baina porrot egiten dugu behin eta berriz haurrak emozionalki ongi zaindu eta haztearen eginkizunean, gure patroï disfuntzionalak masiboki erreproduzitzen, edo gauza bera dena, neurosia barreiatuz.

Bai, familia eta eskola instituzioen birtartez burutzen den egungo heziketa eredu konbentzionalak neurosia sortzen du. Edo kasu larriagoetan, psikopatologia. Ez dagoelako haurrek behar dutena asetzeko pentsatua, eta asegabeko hutsuneek sortzen duten mina saihestu nahia dagoelako, hain zuzen, konfigurazio karakterial neurotikoaren oinarria. Gure jendartea heziketa eredu konkretu horren produktu den neurria, denak gara maila batean ala bestean neurotiko. Funtzionamendu neurotiko hain dago gure artean orokortua non hala denik ere ez garen ohartzen. Normalizatu egin dugu neurosia, normalizatu disfuntzionaltasuna,

normalizatu osasunetik urruntzen gaituzten jokaerak. Hainbeste, non osasuna hori dela pentsatzera iritsi garen.

Nik ez dakit pandemia garai honetan eskoletarako proposatu diren protokoloek birusetik babesteko balioko duten ala ez, ez naiz-eta medikua. Baina argi daukat haurren osasun psikoafektiboaren kontrako neurri garbiak direla, haurren berezko eskubideak beharko luketen baldintzekiko sentsibilitate eta etika falta izugarria erakusten dutenak.

Proposaturiko neurriok hain daude haurren berezko izaeratik urrun, non bere burua ukatuz baino ezin dituen haur batek bete. Beldurra eta behartzea, beste aukerarik ez du hezitzaile batek protokoloen arabera irudikatutako errealitate aseptikoa lortzeko, haurrek munduarengan garatu beharreko konfiantzaren eta ikasteko behar duten espantsioaren kalterako, noski. Pedagogikoki, kasik klase magistralaren aukera baino ez da gelditzen, mugimendua eta kontaktua debekaturik.

Borroka gaitezen osasuna bermatu eta ahalbidetu dezaten eskolek. Baina benetan. Orwellek esan omen zuen bezala, askotan humanitateari eustea bizirik irautea baino erronka handiagoa baita. ●